

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

761

183/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1309/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategorietarako / lanpostu funtzionalarako, zeinetan Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoria sartzen baita (azaroaren 8 EHAA 221. zk.), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 16ko 573/2023 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 31ko EHAA 102. zk.), zeina aldatu egin baitzen abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez (irailaren 7ko EHAA, 171. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko eskaintza argitara eman zen Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoria/lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren urtarrilaren 4ko 6/2024 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten urriaren 21eko 1309/2021 Ebazpenaren I. eranskineko Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko kategorien / lanpostu funtzionalen zerrendan dagoen Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriako destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez, Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriako destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan baztertutako langileen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 16ko 573/2023 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8 oinarrian xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 29a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko otsailaren 13a, asteartea

ERANSKINA

573/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA - EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

NAN	Izen-Abizenak	Baztertzeko Arrazoia
***4011**	Mendizabal Arnaez, Pablo Manuel	Zikloari uko egin dio